

Aretxagazeta

Eliza nagusian
dagoen
estandarretik
hartutako
San Martinen
irudia

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

**Santa Zezilia eguna
Beheko Errota
Musika Eskolan /8**

GAIA

**Gabonetako loteria
lapurtu dute /9**

LEINTZ GATZAGA

**Gatzagari buruzko bi
mila argazki /10**



SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIA
1855a ezkerro, herritarren zerbitzura

Kofradiak urteko batzar orokorra egingo du abenduaren 8an

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 23
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. 943 79 21 99
DOMEKA, 24
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. 943 79 85 83

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Instituitua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK
SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdik 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00/12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00/10:00
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

LARRINON
Domeketan: 11:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA
Domeketan: 12:30

OHARRAK

MENDI ASTEA 2002
Bihar, zapatua, mendiko bizikleta irteera egingo dute, Murruko Elkartearen antolatutako Mendi Astearen barruan. Etzi, domeka, bestalde, Toloñora mendira irteera egingo dute.

ERRETIRATUENDAKO HITZALDIA
Gipuzkoako Kutxak Gipuzkoako Erdi Aroko gazteluen gaineko berbaldia antolatuko du. Berbaldia Mertxe Urteagak egingo du, azaroaren 27an 17:00etan Basotxon.

1976KOEN KINTO-BAZKARIA
Aurten, 1976. urtean jaiotako kintoei Bermeon egingo dute kinto-bazkaria. Irteera azaroaren 30ean (zapatua) egingo dute. Interesatuok eman izena Arlutz tabernan, azaroaren 24a baino lehenago.

1974KOEN IRTEERA
1974an jaiotakoak azaroaren 30ean (zapatua) Zarautzera eta Getariara txangoa egingo dute. Izenematea, Arlutz tabernan.

ODOL ATERATZEAK
Astelenean, hilak 25, odol ateratzeak egingo dituzte osasun etxean. Emaileek txartelarekin joan beharko dute osasun etxera, 16:15-etik 20:00etara bitartean. Informazio gehiagorako, deitu 943 71 19 59 telefono zenbakira.

LORAMENDIRENAGENDA


TALOAK EGITEN IBILI ZIRENENDAKO AFARIA
San Migel jaietan Loramendi Euskara Elkartearen txosnan taloak egiten ibili ziren guztiek afaria egingo dute azaroaren 29an (egubakoitza), Apotzagan.

DIAPOSITIBA EMANALDIA
Anjel Cuerdaren *Txina eta Korea* izeneko diapositiba emanaldia azaroaren 28an (eguna), udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ORAINDELA 5URTEARETXABALETAN

Saretxo Kultur Elkarteak euren egoitza ireki zuten

Saretxo elkarteak 1997ko azaroaren 20an zabaldu zuen bere lehenengo egoitza Nafarroa kalean. Orduan, lau ordenagailu eta inprimagailu bat besterik ez zuten. Gaur egun, aldiz, Durana 11n dute ordenagailuen egoitza, eta han askoz ere tresneria gehiago eta hobeak dituzte.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Maikaria"

Mahaia bete jende.
- *Etxe artan maikaria juntatzen die egunero.*
Mahaia bete janari ere bai.
- *Jesus, au da maikaria jarri dozuna iru lagunendako.*



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Eider Martínez
21ean, 2 urte. Berandu bada ere, zorionak, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Xabier Mendizabal
22an. Urte askotarako! ARETXAGAZETAKo langileen partetik.



ARETXABALETA
Eider Luengo
20an, 4 urte. Zorionak, aitatxoren, amatxoren eta Danelen partetik.



ESKORIATZA
Itziar Uribetxeberria
20an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, etxekoen eta Jose Aranakoen partetik.



ESKORIATZA
Sara Agiriano
17an, 4 urte. Zorionak eta muxu bat, etxekoen eta Jose Aranakoen partetik.



ESKORIATZA
Ander Beitia
24an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, etxekoen eta Jose Aranakoen partetik.



ESKORIATZA
Alex Lete
14an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Josune Mateos
22an, 5 urte. Zorionak, gurasoen, aitonaren eta amonaren partetik.



ARETXABALETA
Danel Seijo
25ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ibai Bengoa
20an, urtebete. Zorionak, Aitorren, Endikaren eta Aitziberren partetik.

ARTANO akaitegia



Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA



FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK





URKULU, S.L.
Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33



EGYNEKO MENJAK
OTARTEKOAK ETA
PLATER KONBINATURAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Oin dala aste batzuk, turroie saltzen hasi zien; zeuk oinddik erosten dozu?



MARIA ROSARIO ALBERDI
etxeoandrie

ANA MARIA ARETXAGA
etxeoandrie

JOSE MAEZTU
langillie

GATI PARRA
langillie

JOSE IGNACIO ISASMENDI
langillie

JOKIN URZELAI
ikaslie

Ondiokan ez. Goix da turroie edo Gabonetako gauzak erosteko. Oin turroie jaten hasi ezkeru. Gabonak heldutakuen aspertu! Santamasetatik atzera erosten dot turroie.

Ez, ondiokan ez dot turroirik erosi. Gabon egunetan bakarrik erosten dot, eta nahikue! Izen be, gero hor eukitten dittut, aspertu arte. Goix hasten die turroioi saltzen.

Egixe esan, ondiokan ez dot turroi bakar bat be erosi, baiñe laster ekingo dutzet, iguel gastau egingo die-eta... Normalien, Gabonak heldu aurretik, bi aste lehenago erosten dittut.

Bai. Umiendako txokolatezko turroie erosi dot. Dendetan jarri zittuen momentutik eskatu eustien umiek, eta erosi egin neuen. Hala be, Gabon egunetan gehixago jaten dogu.

Ez, ondiokan ez dot turroirik erosi. Larregiko agudo hasten die saltzen. Garbi dago ohitturak aldaketan hasi diela, baiñe nik neuk ez dot Gabonak arte turroirik probauko.

Ez, ondikan, behintzat, etxien ez dogu ezelako turroirik erosi. Geure etxien Gabon egunetan bakarrik jateko ohittura dago. Txokolatzeko turroie gustetan jat gehixen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ODOL ATERATZEAK Urtero moduan, Arabako Odol Emaileen Elkarteak odol eskaera egiten duen bakoitzean, herritar ugari egoten dira gertu odola emateko. Emakumezkoak, gizonzkoak, gazteak zein zaharrak; guztiak joaten dira osasun etxera, odol eskaera dagoenean. Horiek guztiak txalo handia beharrean txalo zaparrada handia merezi dute. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

ASTEAN BEHIN /05

KIROLA /06

Aldaketak kofradian

Literatura Lehiaketa

Bigarren erregionala

San Martin-San Jose Kofradiak al-daketak proposatuko ditu abenduaren 8an egingo duen batzarrean.

Loramendi Euskara Elkarteak berritasunez betetako Literatura Lehiaketa jarri du abian.

Bigarren erregionaleko mutilek maila ona erakutsi dute orain arte Ligan jokatu-tako partiduetan.

ASTEKODATUA

9

HAUTAGAIK EGINGO DUTE UDALTZAIN IZATEKO 2. PROBA


Hiru hautagaik ez zuten egin Euskararen Bigarren Hizkuntza Eskakizuna ziurtatzeko proba eta batek ez zuen gainditu. Hala, udaltzain izateko bigarren proba bederatzit lagunek egingo dute.

BESTEKEESANA

“Munduan ugari dago erresistentzia maite-mindutik, ez etsitze itxaropentsutik eta adi dagoen ahots bati bezala hunkitzen gaitu borrokak, baina ez exotismoak eraginda gara zapatismozaleak, ezta ere heroismoagatik, geure esperientziagatik baizik, geure nahigabeagatik, eta badakigulako amildegi ertzean gaudena. Ez fidatu hegoaldetarrak atxikimendu europarrez, progresistez, panazeaz, amets zaharrak islatzen baitituzte beraienak ez diren borroketan. Kri-seilurik gabeko distira, intelektualak mila dira, urrutiko borroken alde, eta hurbilekoen aurka marfilezko dorretan gordeta. Baina euskararen borroka ez da indarkeriarena; eraikitze geldoa da almenarik gabea, banderarik gabea, eta irekia edozeinentzat.

JON SARASUA
(gaztelaniatik itzulitako bertsoa)
‘Hitzetik Hortzera’ ETB-1/02-11-17

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Dabilen Ha(e)rrria

Ruper Ordorikan lan batek DABILEN HARRIA izena eruten dau, eta geu be hamendik aparte ez gaz.

Hau herrixau aspalditik dabil hara eta hona bere lekue hartu edo topau guran. Lekue berez, hartute dauko, baina hor badabil harri bat bueltaka jira-biran geraketan ez dana eta hori geratu artien ez dau ezer.

Bittartien, dabilen herri baten bizi garela esan bihe da, hainbat esparru diferentetan, geldirik egoten ez dana dala erakusten dauelako behin eta barrero.

Sasoi baten, harritik lana eginaz atara zien herrixek aurrera, harginek hortan fin egin euielako lana.

Gaur egun, harri horretatik bizi gure dauenai ez jako izten, badaz hor batzuk, zeinak ez dauen gure herri hau ibilttie.

Dabilen herri bati behin baino gehixautan bidiek moztu jako, ibili ez daixen eta

bere ibilbide propiorik iñoix euki ez daixen.

Guk gureko geunkez zenbait gauze, baine momentu honetan honen herrixonen gainetik dazen beste bi herri haundik ez daue gure. Hortaz, hor dabil gira eta buelta harri bat bueltaka bi estatuen artien, alde batetik bestera, sekule geratu bihe dan lekuen geratu barik.

“Geldirik ez egon” esaten dau Ruper Ordorikak bere abesti baten, nahiz eta aurrien dauen bidie okerra izen.

Askotan zelan gizakixe birriten jausten dan harri berien, hirugarrenerako ikesiko dau zuzena zein dan. Baine, hau ha(e)rrixau behin be ez da lurrera jausi, eta horregatik dau zutik.

Akabetako esan, hamen bizi garen guztixoi ez marietako pastila batek kalterik ez duskule bat ere egingo, ondio be, ha(e)rrri honek ondo dabilela erakusteko buelta asko daukela emuteko eta.

“Gaur egun, harri horretatik bizi gure dauenai ez jako izten, badaz hor batzuk, zeinak ez dauen gure herri hau ibilttie”



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Puntu Gorriak

Herriko ia ume gehienak barizelarekin daudela jakin dut. Koitaduak. Nik ere gogoan ditut nire umetako garai haiek, gorputz osoa puntu gorriekin beteta izan nuela. Ez zen momentu ona izan, ez. Urtero izaten da, bat hasten da eta gero inguruko guztiek hartzen dute gaixotasuna. Eskerrak behin pasatuta gehiago hartzen ez den; beraz, hori pentsatu behar. A zelako kontsolazioa!

Urrunagoko beste batzuek badute pozik egoteko arrazoirik. Bueno, ez urrunekoak bakarrak, hemen bizi diren familiako eta ezagunek ere bai. Seberiano Ayastuyk, Argentinan dagoen misiolariak, Urrezko Bihotza saria jaso du. 88 urte ditu, eta 70 urte eman ditu misiolari lanetan. Han eta hemen beti laguntza emateko gertu. Ez gara, ez, guztiok Seberiano modukoak. Horrelako lanak ordaintzeko modurik ez dago, baina noizean behin egindako lana errekonozitzea ondo etortzen da. Merezi duzu, Seberiano; animuak Aretxabaletatik eta jarraitu hasita duzun bidea.

Herriko kontuekin jarraituz, astebururako badaukat plan on bat. Murruxikok antolatu duen mendi irteerara noa. Fitness egin ostean forma onean nago. Animatzen bazarete, etorri zuek ere Toloño aldera; gero, ardotxo batzuk edan eta...

M. J. Aretxaga

BATZAR OROKORRA/ San Martin-San Jose Kofradiako bazkideek urteko batzar orokorra egingo dute abenduaren 8an

San Martin-San Jose Kofradiak zerbitzu berriak betetzeko laguntza eman gura du


AMAGOIA LASAGABASTER

San Martin-San Jose Kofradiako bazkideek urteko batzar orokorra egingo dute datorren abenduaren 8an. Batzarrean, besteak beste, San Martin-San Jose Kofradiako Zuzendaritza batzordeak azalduko du aurrerantzean zein zerbitzu berri eskainiko dituen.

San Martin-San Jose Kofradia 1855. urtean sortu zen, Aretxabaletan. Egun, gutxi gorabehera, 4.480 bazkide ditu, eta herriko elkarterik handiena da. Hala ere, Zuzendaritzako batzordekide Iñaki Urretaren eta Koldo Zubillagaren iritziz, askorendako guztiz ezezaguna da, eta bazkide askok ez dakite Kofradiako kide direnik ere. Gehienek inguruko norbait hiltzen denean izaten dute Kofradiaren betebeharraren berri.

BETEBEHARRAK ETA ZERBITZUAK

San Martin-San Jose Kofradiak hildako bazkideen ehorzketak eta gorpuaren garraio gastuak ordaintzen ditu. Horrez gain, hildakoaren senitartekoei edo esku-bidedunei laguntza ekonomikoa ematen die. Lan horiek zortzi bazkidek osatutako Zuzendaritza batzordeak egin eta koordinatzen ditu. Kide horiek urtean behin



Kofradiakoek oraindik ere, ondo gordetzen dute elkarteko lehenengo akta liburua.

aukeratzen dituzte, bozketa bidez. Bazkideen artean edonor izan daiteke batzordeko kide, eta hautatua izanez gero, derrigorrez parte hartu beharko du Zuzen-

daritza batzorde horretan. Aretxabaletako Kofradiak Funeraria Arrasaterekin lankidetzak akordioa sinatuta dauka. Horren arabera, Kofradiak zer-

bitzu jakin batzuk ematen dizkio zendutakoaren familiari. Zerbitzu horietatik kanpo bestelakoren bat gura badute -hala nola, errausketa edo beilatoki zerbitzua-, familiakoek eurek ordaindu beharko dute, eta ez Kofradiak.

PROPOSATUKO DITUZTEN ALDAKETAK

Abenduaren 8an egingo duten batzar orokorrean Kofradiako Zuzendaritza batzordeak hainbat aldaketa proposatuko ditu: batetik, urteko bazkide kuota euro bi igo gura dute. Horren ondorioz, datorren urtean, bazkideek zortzi euro beharrean hamar euro ordaindu beharko dituzte. Igoera horren helburua da gorpuaren errausketa eta hildakoa beilatokian edukitzeko zerbitzuak ordaintzen laguntzea. Horretarako, familiakoei ematen zaien laguntza ekonomikoa, orain arte bezala 60,10 eurokoa izan beharrean 270,46 eurokoa izatea proposatzen dute.

Bestetik, norbait hiltzean haren familiakoek lehenengo eta behin, Funeraria Arrasatera hots egin beharrean, parrokiara deitu eta meza ordutegia zehaztea proposatuko dute. Orain arte, alderantziz egiten zen. Lehenengo Funeraria Arrasatera deitzen zuten familiakoak, eta gero, bigarren deia parrokiara egiten zuten.



EHUko irakasle Xabier Garagorrik 'euskal curriculuma' izan zuen berbagai

Euskal Curriculumua izenburupean, Euskal Herriko Unibertsitateko Xabier Garagorri irakasleak berbaldea egin zuen azaroaren 13an, Kutzebarri Eskolan. Hain zuzen ere, gazte batek derrigorrezko irakaskuntza bukatzean izan behar dituen ezagupenen gaineko berbaldea egin zuen Xabier Garagorrik. Eta gai horren ildotik, honako galdera hauei erantzuten ahalegindu zen: eskolatik irteten den gazte batek zer jakin behar du euskal kulturaz eta kultura unibertsalaz?; zein prozedura egiten jakin behar du?; zein trebetasun maila lortu behar du?; eta zer-nolako erantzuna espero daiteke? Xabier Garagorriren iritziz, galdera horiei guztiei erantzuna ematean datza, hain zuzen ere, euskal curriculumua. /A.L.

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia

Otolora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Jou Diaz
Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



ARTXIBOA

Loramendi Euskara Elkarteko presidente Josu Sarasuak eta Kulturako zinegotzi Sokorro Unanuek banatu zituzten iaz sariak.

KULTURA/ Aretxabaletan bizi edo ikasten dutenek har dezakete parte lehiaketan

Abian da XIV. Loramendi Literatura Lehiaketa, berritasunez beteta

AMAGOIA LASAGABASTER

Loramendi Euskara Elkartek, Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzarekin, Aretxabaletako Eskola Arteko XIV. Literatura Lehiaketa jarri du abian. Aurten, gainera, berritasun nabariak izango dira sariketan: besteak beste, Piropro Lehiaketa antolatu dute.

Aurten ere Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasten ari diren neska-mutil aretxabaletarrek izango dute aukera Loramendi Literatura Lehiaketan parte hartzeko. Oraingo aldian, gainera, euskara bultzatzea helburu duen sari-kerak berritasun ugari izango ditu; izan ere, aurreneko aldiz, ohiko ipuin, poesia eta kontu zaharren grabaketez gain, komiki, piropo, amodiozko gutunen eta posta elektronikoko bidezko ziten norgehiagokak antolatu dituzte.

MAILA BI

Urtero legez, Loramendi Euskara Elkartek bi mailatan banatu du lehiaketa: batetik, Lehen Hezkuntzako ikasleek ipuin eta poesiak landu beharko dituzte; eta, bestetik, Bigarren Hezkuntzakoek, aipaturako berritasunak direla-eta, aurten, aukera zabalagoa izango dute: kontu zaharren grabaketak, komikiak, amodiozko gutunak, posta elektronikoko bidezko hitzorduak edo piropoak landu beharko dituzte.

Irabazleek diru sariak eta herriko dendetan trukatzeko txartelak jasoko dituzte

Bi mailatan, ipuin eta kontu zaharren grabaketei dagozkien ataletan, hain zuzen ere, aurten, Aretxabaletako auzoen izenen gaineko lanak baloratuko dituzte gehiago. Gainerakoetan, aldiz, gaia librea izango da, eta muga bakarra egilearen irudimenak jarriko du.

BETEBEHARRAK

Lanak abenduaren 18a baino lehenago aurkeztu beharko dira, gutun-azal baten barruan sartuta, Loramendi elkarteko egoitzan. Posta elektronikoko bidezko hitzorduak, aldiz, loramendi@topagunea.com helbide elektronikora bidali beharko dira. Beti bezala, egileak gaitzizena erabili beharko du lana izendatzeko. Irabazleek diru sariak eta herriko dendetan trukatzeko txartelak jasoko dituzte. Sari banaketa ekitaldia datorren urte hasieran egingo dute: urtarrilaren 23an, hain zuzen ere.

TXUTXUMUTXUA



Hemen lehenengo berbia
EUSKERAZ EIN ZEINKE

Saltokietan eta tabernetan ere, euskaraz!

Laster ikusiko duzue herriko saltoki eta tabernetan goiko argazkian azaltzen den lore atseginarean aurpegia. Loretxo hori Loramendi Euskara Elkartek eta Euskal Herrian Euskaraz taldeak lankidetzan abian jarriko duten ekimena da. Bi talde horiek badakite Aretxabaleta herri euskalduna izan arren, saltoki eta tabernetan barra-barra erabiltzen dela gaztelania. Horregatik, loretxo horrek leku horietan ere euskaraz berba egitera gonbidatu gura ditu herritarrak .A.L.



Herriko plaza z/g ARETXABALETAKO



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETAKO

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETAKO

FUTBOLA

UDAko bigarren erregionaleko taldeak 13-0 irabazi azken partidua

Orain arte, zortzi partidu jokatu dituzte, eta horietatik, bi bakarrik galdu dituzte

AMAGOIA LASAGABASTER

Jardunaldi bi besterik ez zaie falta UDAko bigarren erregionaleko ligako lehenengo fasea amaitzeko. Orain arte, lan ona egin dute Nedzaden mutilek, eta sailkapenean hirugarren postuan daude. Azken partiduan 13-0 irabazi zioten Arrateko taldeari.

Joan den denboraldian lehenengo erregional mailara igotzeko zorian izan zen Nedzadek entrenatzen duen UDA taldea. Denboraldi osoan ondo ibili ziren, eta ia ez zuten partidu bakar bat ere galdu. Dena dela, igoera faseko partiduetan zorte txarra izan zuten, eta azkenean ere, ezin izan zuten ametsa errealitate bihurtu. Oraingo denboraldian, baina, ez dute etsi, eta gertu daude berriro ere beste saiakera bat egiteko. Orain arteko partiduetan, behintzat, horixe erakutsi dute bigarren erregionaleko mutilek.

EMAITZA ONAK

Liga hasi zenetik zortzi partidu jokatu dituzte Nedzadek zuzendutako mutilek. Horietatik, bi



Oraingo denboraldian ere lan ona egiten ari dira bigarren erregionaleko mutilek.

bakarrik galdu dituzte. Gainerako sei partiduetan –garaipenekin eta berdinketekin– aldeko puntuak lortu dituzte. Hori dela eta, taldea hirugarren postuan dago Ligako sailkapenean. Bestalde, aldeko golei dagokionez, 32

gol egin ditu orain arte UDA taldeak. Gol horietatik, ia erdiak joan den asteburuan jokaturako partiduan lortu zituzten; izan ere, joan den zapatuan, Arrateko taldearen aurka jokaturako partiduan 13-0 irabazi zuen UDAk.

XAKEA

Arlutz Xake Taldeak bihar, zapatua, jokatuko ditu Euskal B Ligako lehenengo partidak

Bihar, azaroak 23, Aretxabaletako Arlutz Xake Taldea Euskal B Liga Txapelketa jokatzeko hasiko da. Gasteizen jokatuko dituzte lehenengo partidak, Aranzabizkarrak xake jokalarien aurka. Aurtun, Euskal B Ligan hamar talde arituko dira zein baino zein gehiago, eta Arlutz taldea faboritoen artean dago. Aitor Alcaidek, Esteban Romerok eta Fran eta Andoni Migel jokalaria arituko dira.

MENDIA

Astebururako mendiko bizikleta irteera eta Toloñora mendi igoera antolatuta dituzte

Oraingo asteburuan amaituko da Murruxiko Mendizale Elkartearen Mendia Astea: batetik, bihar, zapatua, mendiko bizikleta irteera egingo dute: Aretxabaletatik irten eta Urrexolara eta Urreoxagaraira joango dira, Urkulutik bueltan. Bestetik, etzi, domeka, mendi irteera egingo dute: Toloño mendira joango dira (Errioxa), eta horren ostean, gainera, bazkaria egingo dute, Guardian.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Ordizia

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA (b)-Antzuola

Gazteen Euskal Liga.

Zapatua. 16:00. Ibarra.

UDA (c)-Billabona

Lehenengo mailako kadeteak

Igandea. 11:30. Ibarra.

Aretxa-Arrasate

Infantilak.

Zapatua. 11:00. Ibarra.

EMAITZAK

FUTBOLA

Mundarro 1 UDA 2

Preferentea.

UDA 0 Eibar 1

Gazteen Euskal Liga.

UDA 13 Arrate 0

Bigarren mailako erregionala.

A. Ondarroa 1 UDA (b) 2

Bigarren mailako gazteak.

UDA (c) 7 Gazteak 5

Lehenengo mailako kadeteak.

Orioko 3 UDA 5

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 5 Eskoriatza 22

Lehenengo mailako gazteak.

Aretxab. 10 Eibar 22

Nagusiak.

Altzatarrak 14 Aretxab. 22

Nagusiak.

ESTETIKA

- Beteleen permanentea eta tindatzea
- Masajea
- Aurpegiko azala garbitzea
- Manikura
- Depolazioa argizari hotzarekin nahiz beroarekin
- Salariuma
- Ezkontzetarako makillajea



Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79
ARETXABALETA

ILEAPAINDEGIA

- Zure orrazkera estiloa aurkituko dugu: ile motza, permanentea...
- Luzapenak, ile naturalak %100
- Ezkontzetarako orrazkera bereziak
- Kolore aukera zabala
- Ilean osasunerako hainbat produktu

GOGORATU!

SOLARIUM BERTIKALA

ETA MASAJE ZERBITZUA

ERRETRATUZAHARRA

Bigarren jaunartzeko erretratua

Gutxi gorabehera, 1944an edo 1945ean ateratako erretratua da ondokoa. Halaxe esan digu, behintzat, Alvaro Zubillagak: "Oso seguru ere ez nago, baina erretratu horretan 12 bat urte edukiko nituen nik, bigarren jaunartzea egin genueneko erretratua da-eta", gogoratu du Zubillagak.

Garai hartan, jaunartze bakarria beharrean bi egiten zituzten: "Lehenengo jaunartzea 7 urterekin egiten genuen; *Aita Gurea* baino askoz gehiagorik ez genuen jakiten ordurako, eta kristau hobeak egin guran-edo, bigarren jaunartzea ere egin behar izaten genuen, bospasei urte geroago. Ordurako, neskei belauetik gora ezin zitzaiela begiratu eta horrelakoak erakusten zizkiguten, eta dotrina ondo baino hobeto ikasita ere izaten genuen".

Iraeta etxeko neskek elizan -eta eskolan ere beste batzuek- makina bat ahalegin egiten zituzten herriko ume eta gazteei dotrina erakusteko. Etxean, aldiz, Zubillagatarrek dotrina gutxi



ikasi zuten: "Errepublikanoak ginen. Baina, hala ere, ikasi egin behar izaten genuen. Askotan, txerrikumeak zaintzen joaten ginen erreka ondora, eta dotrina buruz ikasten genuen, han, txerriak zaintzen genituen bitartean", esan digu Alvarok. Bigarren jaunartzea egin zuten egunean, familiarteko

ei eta lagunei atea jo, eta jaunartzeko argazkiaren truke jaso zituzten errealekin izozkiak erosi zituztela ere gogoratzen du Alvarok.

Erretratuan ageri dira, goiko ilaran: On Luis abadea, eta alboan, On Anjel parrokoa. Bigarren ilaran: Sabino Larrañaga, Esteban Axpe eta


Fernando eta Alvaro Zubillaga anaiak. Behean, eserita: Ignacio Barandiaran, Balentin Gaztañaga, Sabino Zuazabeitia, Fernando Etxebarrieta, Bixente Etxeandia eta Bittor Agirre.

Argazkia: AlvaroZubillaga

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Errekabarren kalea haziz joan da

Aretxabaleta azkeneko urteotan asko hazi den inolako dudarik ez dago. Horren lekuko ondoko argazkiak dira. Errekabarren kalean lehen Durana kaleko atzealdean zeuden ortu batzuk bota zituzten, eta 1990ean, etxebizitza berriak egin zituen Lasagabaster Promozioak. Errekabarren kaleko 1. eta 3. atarteetan 28 etxebizitza eta beste hainbat etxabe egin zituzten.



≈ 1989

Errekabarren kalean ortu ugari zeuden orduan. Durana kaleko herritarrek euren ortuetatik jasotzen zituzten produktuak.



2002

Kaleak itxura guztiz aldatu zuen duela dozena bat urte. Bi atartetan banatuta 28 etxebizitza eta hainbat bulego egin zituzten, 1990ean.

Zubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

AMETS
TABERNA

Iparagirre, 4
Tel: 943 79 01 29
ARETXABALETA

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 22a / 102. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Jaia eta kontzertua Santa Zeziliaren ohoretan Beheko Errota Musika Eskolan

AINZANE GARDOKI

Ehun eta berrogei ikasle ari dira musika lantzen Eskoriatza-ko Beheko Errota Musika Eskolan, eta beste 44 lagunek osatzen dute Musika Eskolaren barruan dagoen Musika Banda. Eta, Santa Zezilia Eguna dela-eta, hainbat ekintza antolatu dituzte.

Gaur da Santa Zezilia Eguna, hilak 22, baina atzo ospatu zuten Beheko Errota Musika Eskolako ikasleek eta irakasleek Musikariaren Eguna: "Musika eskola gehienetan jai hartzen da Santa Zezilia ospatzeko. Guk, aspaldian, jai txiki bat egiten dugu eskolan", esan digu Musika Eskolako zuzendari Araceli Telletxeak. "Eta, bestetik, bihar, zapatua, Musika Bandak kontzertua eskainiko du parrokiari", gaineratu digu zuzendariak.

IA 200 LAGUN MUSIKA ESKOLAN

Urte batetik bestera gero eta ikasle gehiagok ematen dute izena Musika Eskolan aritzeko. Bost urtetik gorako 140 ikasle dituzte oraingo ikasturtean; umeak bakarrik ez, helduak ere joaten dira musika edo kantu ikasketak egi-



Musika Eskolan irakasleek garrantzi handia ematen diote hizkuntza musikalari.

tera. Hizkuntza musikalaz edo lehengo solfeoaz gain, pianoa, soinua, saxofoia, klarineta, tronpetak, zeharkako flauta, perkusioa eta kantua ikasteko aukera eskain-

tzen dute eskolan. "Zazpi urterekin hasten dira instrumentuarekin lanean. Askotan, modak bultzatuta egiten dute umeek aukeraketa. Aurtun, flautak izugarritzko arra-

kasta izan du. Pianoa eta eskusoinua dira, dena dela, jende gehien dituzten instrumentuak". Aracelik esan digunez, azken urteetan asko aldatu da musika ikasteko modua:

"Santa Zezilia ospatzeko, jaia egin genuen eskolan. Bihar, kontzertua emango dugu"

"Zazpi urterekin hasten dira ikasleak instrumentuarekin lanean. Flauta izan da aukeratuena"

"Irakasleak eta metodologia bera, lehen, askoz zorrotzagoak izaten ziren. Umeak, egun, jokoekin eta psikomotritate ariketekin murgiltzen ditugu musikan. Hizkuntza musikala ez dute oso gustuko, baina hori ematen ere ahalegintzen gara, musikan kalitatezko maila izan dezaten gure ikasleek". Gogoratu, bihar, 20:00etan, Bandak kontzertua emango duela.

ATREBENTZIA/EZPADA/ Zer eskaintzen dizu musika ikasteak? Zerk bultzatuta zoaz eskolara?



LEIRE ZURUTUZA
pianoa

Pianoa ikasteko aukera ematen dit Musika Eskolak. Lagunekin kalean egon baino gehiago, gurago dut musika egitea. Pianista ospetsua izan gura nuke, asko gustatzen zait-eta.



JULEN LETONA
klarinetea

Musika Bandan jotzeko aukera eman dit musikak, eta izugarri gustatzen zait. Anaiak bultzatuta joan nintzen Musika Eskolara. Orain, aldiz, anaiak tronpetak jotzeari utzi egin dio.



NAGORE BELOKI
eskusoinua

Txikitatik gustatu izan zait abestea, horregatik joan nintzen eskolara. Solfeoak ez dut horren gustuko. Soinua jotzea, aldiz, oso gogoko dut; orain, gainera, irakasle berriarekin, hobeto!



ALEX REGAÑO
saxoa

Ez dakit oso ondo musikak zer ematen didan, baina gustuko dut eskolara joatea. Aitak esan zidan gustuko izango nuela, eta horrela da. Bandan saxoa jotzea da gehien atsegin dudana.



LIBE ARANBURUZABALA
zeharkako flauta

Flauta jotzen ikastea izan dut gogoko, eta hori ematen dit musika ikasteak. Sei urterekin hasi nintzen, eta flautarekin amaitu arte jarraituko dut. Solfeoak ez zait batere gustatzen.



OIER URRUTIA
klarinetea

Etxekoek bultzatuta joan nintzen eskolara. Egia esan, nik ez nuen oso argi, baina orain, oso gogoko dut. Klarineta jotzen dut dagoneko, eta nire nahia da bandan jotzen hastea.

LABUR

Haur Hezkuntzaz lehen jardunaldiak antolatu dituzte

HUHEZIK eta Arizmendik antolatuta, Haur Hezkuntzan lanean dabiltzan 250 irakaslek hartuko dute parte *Haur Eskola jakintza zientifikoaren argitan; galderak, erronkak eta proposamenak* jardunaldietan. Alemaniatik eta Holandatik etorritako bi adituk zuzenduko dituzte jardunaldiok, eta 0 eta 3 urte arteko etaparen garrantzia izango dute mintzagai Eskal Herri osotik etorriko diren irakasleek. Eskoriatzan etapa horretan lan egiten duten 12 irakaslek hartuko dute parte.

Udaberri aldera bazkaria antolatu guran

Priscilo López duela urtebete alargun geratu zen. Bizitzak trantze latz asko pasarazten dituela-eta, bizitzari aurpegi hobea jarri guran, Priscilok bazkaria antolatu gura du alargun, bananduta eta ezkongabe dauden 45 urtetik gorako eskoriatzarrekin. Priscilok datorren udaberrian egin gura du bazkaria. Dagoeneko kartelak jarri ditu herriko etxeetako atarrietan, eta gura duenak kultura etxean dagoen postontzian eman dezake izena, gutun-azal baten izena jarrita.

Gabonetako loteriako 46.825 zenbakia lapurtu

Benta Motz jatetxean joan den azaroaren 8an gabonetako loteriako 46.825 zenbakiaren dezimoak eta loteri txartelak lapurtu zituzten. Jatetxeko jabeek ez dakite ziur zenbat boleto harrapatu dituen lapurrak, baina ehun dezimo inguru, eta txartelak gehiago izan direla ere badakite. Txartelak erosi zituzten bezeroei dei egin gura die jatetxetik pasa daitezela dirua berreskuratzeke; txartelak baliogabetu dituztelako.

AISIALDIA

Gabon Bidean: umeendako gozagarri eta gurasoendako lagungarri

AINZANE GARDOKI

Eskoriatzako Udalak eta Tortolis ludotekak jarri dute abian Gabon Bidean; umeendako lantegiak, txo-txongiloa, jostailuak eta euskarazko liburu eta informatika gaien erakusketa eta berbaldi bat ere jasoko ditu programa horrek. "Urte osoan egiten dira umei eskaintako ekintzak. Gabonak badatozela-eta, ekintza horiek *pakete* bakarrean sartu gura izan ditugu", esan digu Euskara teknikari Mari Karmen Arrietak. "Umei ondo pasatzeko aukera eman gura diegu, baina gurasoei ere lagungarri izango zaie informazioa eskaini gura diegu". Oraingo asteburuan, 18:00etatik 20:00etara jostailu erakusketa egongo da ikusgai kultura etxean. Bestetik, astelehenean, Mikel Usabiaga psikologoak *Telebista eta teknologia berriak haurraren interakzioan* berbaldia egingo du, 18:30ean.



Gurasoek eta umeek ia ehun jostailu izango dituzte ikusgai oraingo asteburuan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaingoa (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

PANTXOA ETA PEIO

Gaur, barikua, kantari lapurtarrek *Lapurtar Koblariak* azken diskoaren aurkezpena egingo dute, kiroldegian, 22:30ean. Betiko kantuak entzun eta kantatzeko aukera ere eskainiko ei dute. Sarrerak, aurrez, bost euro; txarteldegian, berriz, sei euro.

SANTA ZEZILIA KONTZERTUA

Bihar, zapatua, Musika Bandak eskainita, parrokiari, 20:00etan.

GAZTAINA ERRE JANA

Luis Ezeiza Herri Eskolan gaztaina jana egingo dute eguenean, 15:00etan.

AXTROKIRENAGENDA

BADATUZ, BADATUZ!

Aurten ere badatuz, Axtrokiren eskutik, Takolo, Pirritx eta Porrotx estreinaldi mundialarekin. Datorren zapatuan izango dira, kiroldegian, 17:00etan. Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan.

FOTONOTIZIA



Imazen berbaldi arrakastatsua

Dagoeneko herrian aski eza-gun den Virginia Imazek ume txikien gurasoendako berbaldia egin zuen, Jose Arana guneko ganbaran. Besteak beste, irakasle, nagusien komunikatzaile eta pailazo lanetan ibiltzen da Virginia Imaz. Berbaldiaren izenburua: *Konfliktoen aurrean baliabideak; egoera delikatuak aurre egiteko pistak*. Eskoriatzako, Arrasateko eta Aretxabaletako guraso ugari izan ziren ganbaran. Imazek irribarrea ez ezik, barrea eta algarra ere behin baino gehiagotan piztu zuen gurasoen artean. Berbaldiaren ondoren ere guraso mordoa izan zituen Imazek aholku eske. /A.G.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantentimientua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Santa Ana GOZOTEGIA



Santa Ana 7
ESKORIATZA
Tel. 943 71 52 36

MARI TERE

ILEAPAINDEGIA

Dorleta auzoa,
15. poligonoa, 6-ekz.
ESKORIATZA
943 71 40 19

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Teknologia berriak oso lagungarri izaten dituzte Gatzagako ehiztariek ere

AINTZANE GARDOKI

Hogeita hamabost ehiztarik osatzen dute Gatzagako Ehiza eta Arrantza Elkartea. Ina Alonsok aurtengo denboraldia zelan joan den kontatu digu. Ez da izan iazko denboraldia bezain ona, baina, orokorrean, pozik daudela esan digu.

Ehiztarien esanetan, dagoeneko pasatu da usotan egiteko sasoirik onena: "Gurean hegoa eta nafar haizea izaten dira usoa sartzeko aproposak. Aurten, egun gutxian izan ditugu haize horiek; denboraldia nahiko irregularra izan da", esan digu Ina Alonso ehiztariak. Gatzagar horren esanetan, urriaren 28a eta 29a, aldiz, oso onak izan ziren ehiztariendako Gatzagan: "Anaiak eta biok urriaren 29an begiak zerutik jais-teko astirik ere ez genuen izan: 230 uso bota genituen egun hartan. Hilabete osoan 400 ehizaki jo ditugu, eta egun bakarrean, 230. Zoratzekoa izan zen hura!".

INTERNET ETA POLTSIKOKO TELEFONOA

Herriko ehiztariak pozik daude, orokorrean, denboraldiarekin: "Batuta gaude. Usozale amorratuak gara. Daukagun altxorraz jabetzen gara eta ondo zaintzen dugu hori", esan digu, harro, Inak. Ehizan egiteko teknologia berriak oso lagungarri dituztela ere esan digu: "Interneten usoa hona noiz etorriko den zaintzen dugu. Egun, badago jakiterik usoren nondik norakoak. Telefonoa ere oso lagungarria izaten da". Inak ehizaki gehienak saldu egiten ditu, baina etxerako ere utzi ditu batzuk: "Uso-salda baino estimatuagorik ez dut-eta".

"Etxerako ere utzi ditut ehizaki batzuk, uso-salda baino estimatuagorik ez dut-eta"



Azaroaren 29an, Inaren eta anaiaren artean 230 uso bota zituzten. Argazkia -kalitatezkoa ez bada ere-, horren lekuko.

TXUTXUMUTXUA



Duela 50 urte esan zioten baietz elkarri

Dorletan ezkondu ziren Cruz Azkoaga arrasatearra eta Milagros Beitia gatzagarra, 1952ko azaroaren 8an. Bazkaria Lakitegi baserriko ezkaratzean egin zuten. Arrasateko Obdulia izan zuten sukaldari, garaiko beste ezkontza askotan moduan. Ezteibidaian Zaragozan izan ziren. 50 urte geroago, berriz, ez dute gura izan bidaiarik egin, baina bazkari ederra egin zuten anai-arrebekin eta euren bost seme-alabekin eta hamar bilobekin batera. Zorionak! /A.G.

LABUR

Txelu Angoitiak bi mila argazki baino gehiago egin ditu Gatzagan azken urtean

Azkeneko urtean Txelu Angoitia argazkilaria durangarra askotan ikusi dugu herrian, argazki-makina eskuetan, argazkiak ateratzen. Bi mila argazki baino gehiago egin ditu Gabonetatik hona; paisaia, arkitektura, herriko enpresak, herritarren lanak, museoak, jaiak, herritarrak... izan ditu makinaren ikuspuntuan. Udalak eskatutako lana osatzen ibili da. Herriaren oraina eta etorkizunerako dituen asmoak disko digitalean -DVDan- jasotzea da Udalaren helburua. Juan Martin Elexpuru idazleak letrak jarriko dizkie argazkiei, eta Ihardunek DVD formatuan jasoko du lana.

Datorren abenduaren 6an eta 7an jokatu da Gatzagako Pilota Txapelketa

Ignacio Belokik eta J. A. Beitiak aurten ere abian jarri gura dute Gatzagako Pilota Txapelketa. Baina iaz ez bezala, aurten, bi egunean egin gura dute txapelketa: abenduaren 6an eta 7an, hain justu. "Lehenengo egunean, izena ematen duten bikoteen artean kanporaketak egingo ditugu, eta hurrengo egunean, sailkatutako hiru edo lau bikoteen arteko ligatxoa gura dugu egin. Kanporaketako partiduak 22 tantora izan beharrean 12ra jokatu ditugu", esan digu Belokik. Izena Belokiri edo Beitiari eman, domeka bitartean.

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

Olagarro
espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 45 46
Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00

Esko Sport

Zure konfiantzako denda

Intxaurbueta 5, Eskoriatza. 943 71 52 96 LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA



Altzariak

Diseinua

Apainketa



Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Altube
elktrizitatea CB.

San Migel 13 - 1D
Aretxabaleta. 943 79 53 88

Dintura eta dekorazioa

Gimbert

San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETA

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94

RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA
"R.E.L.E."



Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.

**Margogintza
Dekorativo eta
Industrial**

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18

PINTURAS
ESKORIATZA



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza



Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

URKO
MANTENIMIENTO, S.L.



Instalazioen mantenuendua osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK

KURTZEBARRI
Aluminioak



Araba Ibilbidea, 25
*Tel.: 943 79 28 41 *Fax: 943 79 79 06
*20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
*E-mail: kurtzebarri@euskalnet.net

GORBEA S.L. **K21**



Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa 943 79 15 71

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

J.J. ITURGINTZA
IRURE

**URA
GASA
KALEFAKZIOA**



MITARTE 15
ARETXABALETA **943 793 187**